

## IGELAK ETA ARBOLA OSTOAK



Igelak ur ertzean  
eguzkitan lasa,  
ari zutela beren  
kantuko jolasa,  
kolpez sorturik aize  
bolara aundiya,  
alchatu zuben arbol  
ostozko mendiya.  
Igelak osto ayek  
ikusteaz ala,  
aidean egaztiyak  
iruri zutela,  
eta jaisten zitzaizten  
ustean gañera,  
denak saltatu zuten  
buruz be urera.  
Mugitzeko beldurrez  
zeudela gordean,  
ustez zeuzkatelako  
etsayak gañean;  
bat asi zan esaten,  
atiak zirala,  
edo chikiyagoko  
gauzak etzirala:  
besteak esan zuben  
zirala anzarak,  
egazti lepo luze

oso aunditzarrak;  
eta artan zirala,  
arriskaturik bat,  
irten zan ikustera  
zer ziran ta zenbat;  
eta otsegin zuben  
—ezta egaztirik,  
putzu ontan ez gaude  
igelak besterik;  
ur gañeko gauz oek  
egaztik eztira,  
arbolaren ostoak  
orbelak baitira;  
eta ura aitzeaz  
urpean zeudenak,  
zalapartan, gañera  
irtenikan denak,  
jardun zuten esaten  
chanchetan zirala  
egon izu papera  
egiten an ala.

. . . . .

Izuba dan denboran  
begititik sartzen,  
dira ezdiran gauzak  
begiyetan jartzen;  
eta beste ichura  
badu gauzak artzen,  
orduban ezta inor  
izuti gertatzen.

RAMON ARTOLA,

